



28. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

Alarma egoerako 28. eguna. 2020ko apirilaren 12a, igandea

ALDIZKAKOTASUNA. Alarma egoera dekretatu zen egunetik, 28 egunez Buletina egunero plazaratu ondoren, **aldizkakotasun zabalago batera pasatzea erabaki dugu.** Gaur, Donostiako Hiritarron Harrera Sarea zer den islatuko dugu.

DONOSTIAKO HIRITARRON HARRERA SAREA

2018ko udan sortu zen, zaurgarritasun egoeran zeuden migratzaileei, bereziki gazteei, laguntzeko. Garai hartan ehunka migratzaile eta errefuxiatu iristen ziren gure lurraldera, EBko beste herrialde batzuetara bidean, eta ez zuten baliabiderik aurkitzen egun batzuetan ostatu hartzeko eta beren bideari ekin aurretik indarrak berreskuratzeko. Sareak, beharrezko baliabideak jar zitzaten, eskaria egin zien instituzioei, eta,aldi berean, laguntza lanak eta zituzten premia anitzei erantzuteko laguntza materiala eskaintzeko lanak egin zituen. Gaur egun, instituzioen aldetik baliabide nahikorik jasotzen ez duten eta kale egoeran dauden etorkinekin lan egiten du.

EKINTZAK

Boluntarioak. Boluntarioz osatutako sarea gara. Bakoitza bere erabilgarritasunaren neurrian eta bere ustez ondoen egokitzen diren jardueretan inplikatzeko da. SOS Arrazakeriaren inplikazioa eta laguntza dugu azpiegitura eta dedikazio pertsonal aldetik.

Funtzionamendua. Egitura erabat horizontala da. Sareko edozein kidek bere burua proposa dezake bere jardura eta ekipoetan parte hartzeko, bai eta bere barne-funtzionamenduari buruzko edozein informazio eskuratzeko ere. Lantaldeetan egituratzen da, aldizkako batzarrak egiten ditu eta astero biltzen den talde dinamizatzaile bat dauka, sareko edozein kideri irekia.

Elikagaien banaketa. Hasieran aurreikusi ez genuen jardura bat da, baina duela urtebetetik hona inplikatu behar izan dugu, **gurekin lan egiten duten pertsona batzuek gosea pasatzen dutela egiaztatu baikenuen.** Oinarrizko **behar hau**, instituzioek ezta ere betetzen ez dutena, funtsezkoa eta arreta ia osoa eskatzen duen jardura bihurtu da konfinamenduan. Hau guztia posible da boluntario sareak babesten duen talde txiki baten eguneroko inplikazio ikaragarriari esker, alarma egoera zail honetan, elikagaiak lortzeko aukerarik ez duten pertsonen gero eta eskari handiagoari erantzuteko gai izaten ari baita. Beharra duten pertsonen artean, hogeit bat familia, beren umeekin, dagozkien udalen laguntzarik lortzen ez dutenak. Pluralean hitz egiten dugu, Donostian bizi direnez gain, Errearteria, Pasaia, Billabona, Lasarte eta Tolosako familiak artatzen ditugulako. Gogorra da egiaztatzea, egungo salbuespenezko egoeran ere, betekizun burokratikoak oinarrizko giza eskubideei gailentzen zaizkiela. Gaur egun, 150 pertsona baino gehiagori jaten ematen diegu. Konfinamenduaren osteko panoramak kezkatzen gaitu. Erakundeen jarrera dela eta, arlo horretan dedikazio handia beharko dela sumatzen dugu. Eta, Sareak dituen mugez gain, azpiegitura aldetik ere oinarrizko arazo bat dugu. SOS Arrazakeriaren bulegoak erabiltzen ditugu biltegi gisa, baina gaur egun eskatzen den espazio-bolumena bateraezina da bulego horretatik egiten den lanarekin, konfinamendua amaitzen denean espazio hori erabili beharko baita. Duela hilabete batzuk biltegi moduan erabiltzeko lokal bat eskatu genion Udalari. Gaur arte.

Aldarrikapena. Sareari zentzua ematen dion funtsezko osagaia da. Bazterrean geratzen direnei ikusgarritasuna emateko sortu ginen eta horretarako existitzen gara, gizarte pertsona hauen eskubideez eta beharrez sentibilizatzeko eta instituzioei horiek artatzeko beharrezkoak diren politikak exijitzeko. Helburu horrekin era guztietako txosten, salaketa eta elkarretaratzeak egin ditugu.



28. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

Konfinamenduan ere horretan ari gara eta, aldi berean, konponbideak ematen inplikatzeko gara. Alderdi bikoitz hau da Sarearen ezaugarrietako bat, bere izenari ohore egiten diona: Harrera.

Komunikazioa/Sentsibilizazioa. Aurreko atazaren parte da, eta buletin hau horretarako tresna bat da. Lan honetan, gainera, euskarara itzultzea bermatzen digun talde baten lan itzela dugu. Sare sozialak, Facebook eta Instagram ere barne hartzen ditu.

Logelak bilatzea. Joan den urtearen erdialdetik egiten ari garen lan latza da, udalak ematen dituen laguntzen zenbatekoak oso zaila, baina ez ezinezkoa bihurtzen baitu Donostian gela bat alokatzea. Laguntza-lerro hori horretarako pentsatuta ez dagoenez eta aurrekontua mugatua duenez, bide hori ere itxi egin zaigu ekitaldi honetarako. 20 mutil eta neska baino gehiago atera genituen kaletik horrela.

Arropa taldea. Oso beharrezkoa kalean bizi direnentzat. Neguan hotzak estutu egiten du, eta mantak, lo zakuak... behar izaten dira. Batzuetan, garbiketa-taldeak zakarrontzira botatzen dizkiete. Emausek leku txiki bat uzten digu arropa pixka bat gordetzeko.

Laguntzea. Dela hizkuntzagatik, dela ematen zaien tratuatik laguntza behar duten gestioetarako. Hemen ere, neurri batean, entzun egiten zaie.

Lege-aholkularitza. Dokumentazioa. Dokumentazioa lortzeko beharrezko kudeaketak.

Euskara eta gaztelania klaseak, jolasguneak ...

Ezinbesteko gastuetarako laguntza ekonomikoa: dokumentuak kudeatzeko kontsultxeetara egindako bidaiak, beste hiri batzuetara egindako itzulerak, bizileku-gastuak aurreratzea, butano-sukaldeak eta berogailuak ...

Diruzaintza. Sarea, bera babesten dutenen ekarpenekin finantzatzen da, erakundeen inolako laguntzarik gabe.

Harreman instituzionalak. Sarea beti saiatu da irtenbideak ematen eta instituzioen lanaren osagarri izaten. Tamalez, hau ez da instituzioen ikuspegia. Salbuespen gisa, igarobidean zeuden migratzaileen etorreraren momenturik altuenean, oso emaitza eskasak izan zituen harremana izan genuen. Udalarekin izan zirenek ez zuten inolako emaitzarik eman. Harremanik emankorrena larrialdietako gizarte-zerbitzuen ardura duen taldearekin izaten da. Ikuspegia amankomuna da, eta beren inplikazio eta gaitasun profesionalari esker egoera konplikatuak konpon daitezke, iritzi dibergenteetan irizpideak ezarri eta nabarmen eskasegiak diren baliabideak kudeatu.

Hau da, oso modu laburrean, Sarearen argazkia. Parte hartzera animatzen al zara?

Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Facebook: @HiritarronHarreraSarea

Instagram: @harrerasarea

Dohaintzak: CC ES44 2095 5013 70 9119577666

Gainerako buletinak kontsultatu nahi badituzu, hemen egin dezakezu:

<http://www.mugak.eu/news/covid-19-boletines-diarios-de-la-red-ciudadana-de-acogida>

ZABALDU, bidali zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.